

3er liburua.
Mairam Azorera Zuzenak
Zdora Kalea 3 80k, 3AV. 2.
GARAI BATEKO HAUTZAROAK ETA GAZTAROAK

forzuela IP

Ondoren, mende hasierako pertsona batzuen hautzaroak eta gaztaroak nolakoak izaten ziren kontatuko digu Dolorex Mitxelenak. Gaur egun laurogeitazortzi urte dauzka Dolorexek.

Atta Prantzín izaten uen lanen eta gripek arrapatu zian eta bere koñado ta biek Juamari nere aman anaia ta biek, biek arrun gaizki zaudelata yoteko abisoa ama zenari ta, Bergaran Flora ta biek yon ittuen ark launduko zila eta. Yonta illa eta bere anaia Juamari arrun gaizki eta ora ordun, oañ ekartzen dia biño ordun kartzeik ez. Atta bertan illa utzi eta bere anaia ala utzita etzela torko, nola do ala kar bar tzula, eta Frantzín mando batekin karro zar bat bilatu. Españira pasatzeko, eta Españitika kotxe baten, mandoo ta kotxek izaten ittuen ordun, ez uen izaten beste katxarro oinika eta, mandoo ta kotxe baten Olaberrira alleetu zien, bere itxera, gure ama zenak, bere anaia, gizona illa an utzita. Eta gu nora do ara yon in bar, bedetzi urte nittien nik, eta Suron norbette bear zutela neska kozkor bat. Attona ta izeba ta osaba, berak umeik etziten ta ixtilluk ikusi nittien. Eskarpiñ, komonioa iñ nun eskarpiñ txar batzuekin yon niñuen ara, Aranora, eta aiek soñetik kendu, aik yaitako altxatzeko elizara yoteko, eta amak eman tzittian eskarpiñak elizara yoteko altxatu nittien, altxazi zizkiaten an. Abarkak iñen tzittiala an ibiltzeko bei larrukin, eta euna yon ta euna torri ta beti ankutsik eta abarkik itten ez. Noizbette abarkak in tzekean, belexe azpitik autsi abarkak, bei larrukin intako

abarkak guk itten ginittun lasterrakin seittun autsi. Azarkiña patzeko, azarkiña izaten uen zerbette trapua do beste galtzerdi zar puskak o zulo artan patzeko eta, zulo artan patu barrendika azarkin ora biño orare belexe autsi itten eta, berrize abarkak itteko krixton denbok pasatzen zittien, bei larrua itxeen bazien biño itteko denboik artzen etzien eta ni ankutsik.. Ankutsik beiak eramattera larrera, ankutsik illunoarren yezteko beian billa, eta ankutsik dena. Alorren berriz attona ta biek aitzen giñozen, ta alorren aisa aitzen giñozen, alorren lurren ainbeste anak ez ginittin kastiatzen.

Oiua itten tziutenen gosaltzera o bazkaltzera yon, gosaltzen asita attonak eta biek talo bana yan, ark beste erdika bat sartu ta nik utzi zuna, ark utzi zuna, nik e inbiri matten ta sartu esnean beste talo erdika ark utzi zuna ta, itxeoandreak bazterretika," attonak aña talo yan bar dun ik e? abueno! Mantentzeko aña itten e lan eerra do zurekin! Izugarrik irauzten ez giñien, illaeeteko duro bat, biño ale ora aundia iduitzen zitziteon emattera, bai.

An aspertu niñuen ta ni enitzala ala ibilko ankutsik beiak alatzera ta beik ekartzera ta anka guzik arantzaz betek nittula, Maixeneko bordako neskameri esan esan neon, "beno", beiak alatuta Aranoko Amaikalandaretan betik gotti beiak patuta, "esaioten ni itxee noala, ni itxee yon nitzala, ni enun ola ibiliko ankusgorritan anka guzik arantzaz betekin" eta arkin abixtu niten itxera yon nitzala, eta errii biño aldeo nien eta attona eta amonan itxera, Alkaxarrera yon niñuen, beiak alatuta lasterka atzetik iñork arrapatzeko beldurrakin, atze beitzu usu demonio sartu niñuen Alkaxarren, ta Alkaxarren sartuta amari abixtu bearko zitela, ama eramanazi ziten, erritik eramanazi zuten, eta baita falta izuarri itten nula an ta ilaateko duro bat ematten tziatela ta berriz

eraman iñ bar niñola, eta osaba bat solteroa bazen an, Alkaxarrenta, osaba ark esaten tzun utzitzeko umeri paken nai etzun lekura umeik ez bialtzeko, eta beste itheen ezkontuta zon osabak e ori aittu nai. Ume ttiki bat zuten eta berak aurtzaia bear tzuten eta aik kontentu ni torri nitzanen ta nire bai an gelditzeko eta ikaarrizko pozakin geldittu nitzan attona ta amonan ondoon. Attona menditik eldu zenen suondon eseita yartzen tzen, amonak kopa pattarra matten tzin, beste bat berak eraten tzun, eta niri berriz eztularo, pattar pixkoaten inbiria nik e, eztulka asitzen nitzan ta, amona aranoarra izaten gunun eta "ai gaxua eztula dakezu, eon pixkot eon, tira pattar ttantto bat" amonak berak eranta niri pattar pixkoat ematten tzian eta arrun gustora bizittu nitzan attonakin ta amonakin ta izeba ta osabakin.

Aurra nearrez asitzen tzenen ama zen lekura eramane bear izaten nien titi emattera, alorren bazen alorren, eta eun baten ataiko atea itxitzen asi niñuen aurra bizkarrera botata maratillara ezin alleetuz, eta aurra bizkarretik betti bota nien eta etzien sekulan iñork ikasi zandu ta aurrak deus etzunen poz earra bai nik.

Amalau urtekin Ariztira yon niñuen neskame, ta an berriz urree bezela. Itxe guzia neskamez ta morroiez betea, Fermin motikozkorratan eramana Exkernitika bertan geldittua izaten uen. Santus ben parientea berak azitzeko artua izaten tziten. Eta Martzelinore bai bere parientek andre ark baserri aundia izaten ziten eta, denantzat aña lana izaten tzen, eta ni berriz arrunt ongi, berekin baten lotan artu niñon, atta hil berria zun eta bere launtako bezela eramana izaten niñun ni berekin lo itteko ta, ta an arrunt ongi izandu niñuen. Izuarrizko astokerik itten ginittun biño gerak nai ginittulakoz. Afalduta

pitarra itteko, ordun aspillan sarra zanpatuta pitarra itten uen barrika bete saarrakin, ta uraz beteta, eta arratsen ora betetzera biño gerak nai gunulakoz, ez bialduta, bai Santus ta Martzelino ta ni ta denak neskamek eta morroiak, zera ez uen yoten, Fermin, ora zartxioa izaten uen, ora gu biño lentxio ta gainea zartxio ta ark malizi geio izaki ta ora ez uen arratsen urketa yoten gu bezela. Gu berriz auzo guzia irrintzika gunula itxeen arrapatzen ginittun ontzi guzik artuta barrika betetzen arratseko amabita ta ibiltzen giñozen , biño gen gustora, illargitan.

Amasei urtekin Aranora yon niñuen eta, , Jesus ara! Eriñozura yon niñuen amasei urtekin eta an bi motikon aurtzai eondu niñuen an, eta an e naiko ongi. Taberna izaten tzuten eta, nik tabernako lanik ez nun izaten, bi motiko ain lana izaten nun ta arrunt ongi pasatu nun an e.

Aranon ya neskaxa in giñanen e naiko ongi pasatzen genien. Bialtzen giñozten zerara, errina, eta motilak aztik, aztik asi orduko , eta atzetik eldu zianak utzita guk gen gustokok nai ta bestek artuta ixtilluk kusten ginittien. Goiko mendira atere utzi ginittun aiek eta atzetik arrika itxeen sartu giñan arte guziin atzetik arrika, bai ixtillu earrak bai!

Gure gazte denbon gure izatea Kaperoko Benardokin izaten genien, esku bat motza izaten tzien ta kordiona txar bat bazien , ora artuta argañan gañera iotzen uen ta ondoon Txamoberriko Prantxixku zena txixtukin. Bat txixtukin ta bestea kordiona goikoz betti artuta, eta gure juerga guzia ora izaten uen. Sasoik obenan, emezortzi urtetik gotti giñozen orduko ta guk ora naikoa.

Gero amizkilla yozkero illundu biño pixkot lentxio yotzen tzun ta, amizkilla yozkero denak erretira, danga, danga, danga ora asitzen tzenen ezkilak jotzen torretika denak itxera lasterka, eta bixtan ezpagiñan, itxetik bixtan ezpagiñan ama oiuka, eta urrengo yaien plaza torrita amak leiotik itten tzun bezela lemiziko mutillak erantzun ora, u u u u... gure ama zenak itten tzun bezela, eta alaxeko lotsatan ibili bar izaten gunun guk gazte denbo guziin.

Nere aizpa Ferminare ttiki-ttiki zela eraman zuten Hernanira. Aranoko Dominika izena zun andre bat ibiltzen tzen kafe ta azukre ta saltzen Aranotik torrita baserriz baserri, eta, ark lekua bilatu zin, eta ttiki-ttikia zela eraman zuten orare. Anaia sei zazpi urtetako eraman zuten baserrira. Ardia ta beia ta azinda ta lana besteik etzen lekura. Azi bar tzuna bate azi be geldittu zen orare. Bai, zazpi urtekin eraman zuten ne anaia Alkaxarrera, eta, an etzen attona ta amonan itxera yon tzen, ta izeba ta osabanera, biño an etzen izaten izebik ta osabik ta attonika. An izaten zen lana ta eurra, besteik etzen izaten an. Orduko bizimodua ta oaingoa. Oañ umeik elitzake zutik ibiliko gu ala ibilli giñan bezela, bai, oaingo umeika.